

EGUZKIA NOLA AGERTU ZEN

Gidoia

564 hitz

KONTALARIA: Antzinako denboretan gizonek ez zekiten Eguzkia zer zen, Eguzkirik ez zelako. Gau eta egunez Lurra Ilargiak eta Izarrek baino ez zuten argiztatzten. Gizonek uste zuten Izarrak hodeien atzean bizi ziren erraldoi batzuen begiak zirela. Ilargia, aldiz, izarrik handiena eta Zeruko Nagusiaren begia zela iruditzen zitzairen. Gainera,



esan behar da antzinako denbora haietan gizonek ez zutela ez arkurik, ez gezirik erabiltzen eta txoriak eta basapiztiak ez zirela gizonaren beldur. Mila koloretako kakatuak eta papagaioak jolasean ibiltzen ziren oihan zabalean; ahate beltzak igerian ibiltzen ziren ibai lasaietan eta kanguruak gizonaren txaboletaraino iristen ziren saltoka. Inork ez zekien zer zen beldurra. Hala eta guztiz ere basapiztiak batzuetan eztabaidan aritzen ziren elkarren artean. Behin batean kurriloa* eta emua*, txori hanka luzeak biak, paseatzera irten ziren. Gauza jakina denez, emuaren hankak, kurriloarenak bi halako dira eta kurriloa atzean geratzen zen, noski.

KURRILOA.- Ez ibili hain azkar, lagun!

KONTALARIA.- Baina emuak ez zion erantzun. Egia esan, bere asmoa ez zen azkar joatea, baina oso hanka luzeak zituen eta ezin zituen inola ere gelditu. Kurriloa benebenetan haserretu zen eta bere laguna iraintzen hasi zen. Emuak ezin izan zuen hori jasan eta burua bueltaturik, sekulako mokokada jo zion kurriloari. Kurriloak lasterka bizian ihes egin behar izan zuen, baina ez zuen mokokada ahaztu. Emuaren habiara joan, haren arrautza handietako bat hartu eta gorantz bota zuen bere indar guztiez. Arrautza jira-biraka igo zen zeruraino eta han goian izar erraldoiek bildutako hosto pilaren gainean erori zen. Hostoen kontra jo zuenean, arrautza lehertu eta bere gorringo distiratsua hostoen artean zabaldu zen, sugar handi-handiak sortuz.

Basapiztiak eta gizonak ez zeuden ohituta halako distirak ikusten eta ia-ia itsututa geratu ziren. Zeruko Nagusia ere bat-batean esnatu zen su handi hura ikustean. Lurrera begiratu zuen eta poz-pozik jarri zen: Eguzkiaren argitara Lurra askoz ederragoa zen.

ZERUKO NAGUSIA.- Benetan ikusgarria da Lurra! Horrelakoa izan behar du beti!

KONTALARIA.- Eta Zeruko suari begira geratu zen. Suak egun osoa iraun zuen, baina iluntzean agortzen hasi zen. Pixkanaka-pixkanaka, hodeien artean ezkututzen ziren sugar txiki batzuk besterik ez ziren geratzen. Zeruko Nagusia beldurtu egin zen eta hauxe pentsatu zuen:

ZERUKO NAGUSIA.- Gauzak gaizki doaz, ba! Zerez piztuko dugu Zeruko sua, sugar guztiak itzaltzen badira?


KONTALARIA.- Orduan sutara kontu handiz hurbildu, sugarretako bat hartu eta hodei beltz baten barruan gorde zuen. Une hartan Lurrera gaua heldu zen eta gizonak lotara joan ziren. Baina Zeruko Nagusia ez zen lo geratu.

ZERUKO NAGUSIA.- Hasi lanean!

KONTALARIA.- Eta bat-batean milaka izar distiratsu agertu ziren. Izar haiek gau osoa hostoak biltzen pasatu zuten. Hosto piloia mendi baten tamainakoa izan zenean, Zeruko Nagusiak sugarra gainera bota eta bere laguntzaileekin batera putz egiten hasi zen. Poliki-poliki sugarra gorrituz joan zen eta suak sekulako distira ederra hartu zuen. Gizonak esnatu eta esan zuten:

GIZONAK.- Begira, Zeruko Sua Lurra argitzen ari da berriro!

KONTALARIA.- Eta lanera joan ziren poz-pozik. Egund harez geroztik, Zeruko Nagusia eta bertako langileak gauero-gauero lanean ibiltzen dira zeruan. Beraiek dira hostoak bildu eta Eguzkiaren suari putz egiten diotenak. Eta gizonek lo lasai eta lanera



garaiz iristeko, Zeruko nagusiak oilarrari agindu zion gizona egunsentia baino lehenago esnatzeko. Horregatik, goizero-goizero, ekialdetik argia ikusi bezain laster, oilarra teilatu gainera igo, hegoak astindu eta honela oihukatzen du:

OILARRA.- Kukurruku! Kukurruku! Esnatu denok, Eguzkia hemen baitugu!

KONTALARIA.- Eta gizonak poz-pozik jartzen dira, badakitelako Eguzkiak bizia, argia eta beroa ematen dizkiela.

*Kurriloa: Grulla

*Emua: Emu (ostrukaren antzekoa)

Habe- Ikasbil- Aisialdirako- Ipuinak



kurriloa



emua